



## AGINDUA, BIGARREN LEHENDAKARiorde eta lan eta enpleguko sailburuarena, Euskal enplegu sistemaren lege-aurreproiektua egiteko prozedura abiarazten duena

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legeak ezartzen du zer prozedurari lotu beharko zaion Eusko Jaurlaritzaren jarduerara, izaera orokorreko xedapen orokorrak egiteko, hain zuzen, edozein gairen gainekoak izanik ere, antolamendu juridikora berrikuntzak dakartzaten arau juridikoak dauzkaten xedapenak eta lege, legegintza-dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen dutenak.

Aipatutako legearen 4.1. artikulua ezartzen du xedapen orokorrak egiteko prozedura xedapen horien gaiaren gainean eskumena duen saileko sailburuaren aginduz hasiko dela, eta lege beraren 5. artikulua, bestalde, zer eduki jaso beharko dituen prozedura hasteko agindu horrek.

Azaldutako guztia ikusita, Agindu honen bidez betetzen da 4.1 eta 5. artikuluek eta aurrekoek agintzen dutena.

Era berean, aintzat hartu behar da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan xedatzen dena, hor ezartzen baitira legegintza-ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala ongi arautzeko printzipioak.

### Arauaaren xedea eta helburua.

Enplegu politika gizarte baten politika nagusietako bat da. Ordaindutako lanari berez lotuta dagoen ordainsari-dimentsioaz gain, enplegua funtsezko tresna da gizarteratzeko eta giza garapenerako. Kalitatea nahikoa denean, pertsonen potentziala, sormena, berrikuntza eta irudimena askatzeko aukera ematen duen bitartekoa da lana. Funtsezkoa da giza bizitza produktiboa, erabilgarria eta esanguratsua izan dadin. Bizimodua irabazteko aukera ematen die pertsonari, gizartean parte hartzeko bidea da, bizi-erreferentzia, segurtasuna ematen du eta duintasun-zentzua ematen du.

Azken hamarkadetan, lan-merkatua aldaketa handiak jasaten ari da, askotariko faktoreekin zerikusia dutenak: lanpostuetan ordezkapena eragiten duten automatizazio-prozesuak, ekoizpen-inguruneen eskumen- eta antolaketa-eraldaketa dakarten digitalizazio-prozesuak, produkzio-prozesuen arteko harremana pixkanaka ahultzea enplegu garbia sortzeko, lan-merkatuak jada ez

Donostia - San Sebastian, 1 – 01010 VITORIA-GASTEIZ





duela sortzen behar besteko enplegu kantitate eta kalitatean, enpleguan lan-babesa ahultzea, lan-merkatuan gero eta dualizazio handiagoa egotea, non gehien hazten diren lanpostuak kualifikazio handienekoak eta txikienekoak diren, lan egiteko eta lana antolatzeko modu berriak agertzen diren, hala nola besteren eta norberaren konturako langilearen izaera lausotzen duten plataformetan lan egitea, telelana areagotzea ...

Euskal erakundeek urte asko daramatzate eraldaketa horiei erantzuteko ahalegin handiak egiten, sare ekonomikoari eta enpleguari laguntzeko hainbat neurriren bitartez.

Euskadin, enplegu-politika aktiboak gauzatzeko eta diseinatzeko eskumena jasota dago azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuan; horren bidez, enplegu-politika aktiboen gauzatzea Euskadira transferitu zen. Urte horretan (2010) Lanbide sortu zen Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko gisa.

Baina Lanbidez gain, Euskadin hiru foru-aldundiek eta EAEko 250 udalek jarduten dute enpleguaren eremuan. Bestalde, gizarte-eragileek, enpleguaren esparruari lotutako erakunde publiko eta pribatuek eta hirugarren sektoreko erakundeek ere zeregin garrantzitsua dute enplegu-politika aktiboen garapenean, askotan lan-merkatuan sartzeko zailtasun handienak dituzten pertsoneri lotuta. Bestalde, Eusko Jaurlaritzako sail askok enpleguaren eremuan eragina duten politikak ere garatzen dituzte, batez ere lehiaren sektore-esparruari lotutakoak, hargatik eragotzi gabe Lanbidek Euskal Enplegu Zerbitzu gisa dituen eskumenak.

Sare konplexu horren gobernantza garatzea da Euskal Enplegu Sistemaren Legearen helburuetako bat, elkarrizketa soziala, elkarrizketa instituzionala eta elkarrizketa zibila antolatuz.

Orain arte egindakotik abiatuta, eragile bakoitzaren ahaleginak aitortzea eta lortutako emaitzak objektibotasunez ebaluatzea da Euskal Enplegu Sistema eraikitzeke behar den abiapuntua. Eusko Jaurlaritzak lan egiten du lan horretan, eta legegintzaldi honetan Enpleguari buruzko Lege bat onartzeko konpromisoa hartu du, XII. legegintzaldiko gobernu-programak jasotzen duen bezala. Programa horrek Enplegurako Gobernantza Integraleko eredu berri bat bultzatzeko konpromisoa ezartzen du, Euskal Enplegu Sistemaren Legearen bitartez. (1. ekimena, 3. konpromisoa, 1. ardatza).

2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiak, Gobernu Kontseiluak 2021eko apirilaren 13an onartutakoak, ezartzen du bere proiektu bultzatzaileetako bat Euskal Enplegu Sistemaren Legea onartzea dela, Euskadik behar dituen kalitatezko enplegu-politika aktiboak planifikatu eta garatzeko egiturak eta tresnak arautu eta antolatuko dituen, enplegu-politika aktiboak izateko



eskubide subjektiboaren printzipiotik definituta. Besteak beste, lege honek honako hauek bete beharko ditu:

- Euskal Enplegu Sistema osatzen duten eragileak eta horien harreman-eredua definitzea.
- Euskal Enplegu Sistemaren onuradunak diren zerbitzu, pertsona eta eragileak definitzea.
- Euskal Enplegu Sistemaren gobernantza ezartzea eta parte hartzeko organoak eta horien plangintza-tresnak definitzea..
- Sistema berritzeko eta ebaluatzeko tresnak ezartzea, ekintzen kalitatea eta eraginkortasuna orientatzeko eta oinarritzeko.

Enpleguaren Euskal Estrategiak 26 gako ezartzen ditu hurrengo hamarkadan enplegu-politika publikoak garatzeko, eta lau bektore estrategikoren inguruan artikulatzen ditu. Bektore horien artean aitortzen du "enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboa, hau da, enplegu-zerbitzu publikoa hobetzeko ekimenak, eraginkorra izan dadin". Gainera, 8 proiektu traktore egitea agintzen du, besteak beste, Euskal Enplegu Sistemaren Legea egitea.

Hauek dira Euskal Enplegu Sistemaren Legeak jaso beharko dituen oinarritzko elementuak:

- Zerbitzu-zorroa definitzea eta enplegu-politika aktiboetarako eskubide subjektiboa artikulatzea, EAEEn 12.2 artikuluan aurreikusitako eskumen-esparruaren barruan.
- Sistemaren osagaiak, instituzionalak eta sozialak, horien eta gobernantza-organoen arteko harremanak definitzea, Lanbide Euskal Enplegu Sistemaren tresna publiko nuklear gisa kokatuz.
- Informazio- eta prestakuntza-sistema
- Ezagutza sustatzeko sistema
- Enplegu-politikak ebaluatzeko sistema.

Arauaren helburua da identifikatutako arazoei irtenbidea ematea eta honako erronka hauei erantzutea:

- Funtsezko printzipioak indartzea, hala nola berdintasuna, aurrea hartzea, berrikuntza, erresilientzia eta erantzuteko abiadura.
- Elkarriketaren eta adostasunaren printzipioak azpimarratzea, gure ustez funtsezkoak baitira egoera berri honen arriskuak minimizatzeko eta aukerak aprobetxatzeko.
- Enplegu Politika Aktiboetarako eskubide subjektiboa, haren irismena eta mugak aitortzea.



- Euskal Enplegu Sistema bat eraikitzea, behaketan, prospektiban eta ebaluazioan oinarrituta lan egingo duena, lan-merkatuan gertatzen diren aldaketei aurrea hartzeko eta aldaketa horiei erantzun dieten zerbitzuak eta programak diseinatzeko.
- Euskal Enplegu Sistema bat eraikitzea, esku hartzeko eredu pertsonalizatuetatik abiatuta lan egingo duena eta pertsonen eta enpresen beharrei erantzun azkarra emango diona, langabeziaren kronifikazio-egoerak saihestuz.

### **Bideragarritasun juridikoa eta materiala.**

Etorkizuneko Euskal Enplegu Sistemaren Legeak esparru juridiko eta eskumen-esparru hauek ditu babes:

Konstituzioak 149. artikuluan ezartzen du Estatuak duela lan-legeriaren alorreko eskumen eskusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek legeria hori betearaztea: betearazpen-eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, Autonomia Estatutuaren 12. artikuluari jarraikiz.

Autonomia Estatutuaren 12.2 artikulua araber, autonomia-erkidegoari dagokio betearazpen-edo exekuzio eskumena alor honetan: lan-legeria, gaur egun Estatuak arlo honetan dituen lan-harremanei buruzko ahalmen eta eskumenak bereganaturik. Halaber, Estatuak lan-legeria betearazteko dituen zerbitzuak antolatzeko, zuzentzeko eta gainbegiratzeko ahalmena, Estatuaren Goi-ikuskaritzaz bat, lan-baldintzak gizartearen garapen- eta aurrerapen-mailari egokitzen saiatuz eta langileen kualifikazioa eta prestakuntza osoa bultzatuz.

Era berean, Estatutuaren 10. artikulua zehazten du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidearen eta Euskal Herriko ekintza ekonomikoaren plangintzaren arloan, ekonomiaren antolaketa orokorraren araber. 9. artikulua, berriz, ezartzen du ezen euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan, bereziki bultzatuko dutela bizitzeko eta lan egiteko baldintzen hobekuntza ekar dezakeen politika, eta neurriak hartuko dituztela enpleguaren hazkundera eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzen laguntzeko.

Ekonomia Itunak Konstituzioaren babesean zehazten du Euskadiko lurralde historikoetako erakunde eskudunek beren zerga-sistema mantendu, ezarri eta arautu dezaketela. Horrek esan nahi du euskal autogobernuak bere baliabideen bitartez finantza ditzakeela eskualdatutako eskumenak.



Hartara, EAEtik datoz enplegu-politika aktiboen programak eta zerbitzuak estaltzeko baliabide ekonomikoak, kupotik kentzen baitira.

Bestalde, Enpleguaren Legearen Testu Bateginak, zeina urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, Enplegu Sistema Nazional bat ezartzen du, deszentralizatua eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaz eta Autonomia Erkidegoetako Enplegu Zerbitzu Publikoez osatua.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuak Transferentzien Batzorde Mistoaren erabakia jasotzen du, lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-prestakuntzaren arloan lan-legedia exekutatzeko funtzioak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzeari buruzkoa.

Urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen, eta aukera eman zuen zuzenean kudeatzeko Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika aktiboak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolaraueti buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 legegintza-dekretuaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioiko sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 6. artikuluan arabera, Lan eta Enplegu Sailari dagozkio, beste eginkizun eta jardun-arlo batzuen artean, enpleguari dagozkionak, eta hori ikusita, eskumen-eremu horretan sartzen dira etorkizuneko lege honen xedea osatzen duten berezko gaiak.

Eskumen hori baliatuz, eta XII. Legegintzaldiko 1. ardatzeko 3. konpromisoko 1. ekimena betetze aldera, Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektua egiten hasi da.

Urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuak (Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak) xedatzen du Enplegu eta Gizarteratze Sailburuordetzari dagokiola araudi-proposamenak lantzea enplegu- eta prestakuntza-arloan eta diru-sarreraren bermeko eta gizarteratzeko arloan, betiere Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzaren bidez.

Esan bezala, aurreproiektua egitea eta izapidetzea Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legean xedatutako bidearen arabera garatuko dira.

### **Zer ondorio izango dituen ordenamendu juridikoan**

Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektua indarrean sartzean, indargabetuta geratuko dira legean xedatutakoaren aurkako maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak, eta, zehazki, baliteke proiektatutako erregulazioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 2/2011 Legeari eragitea.

### **Zer eragin izango duen ekonomian eta aurrekontuetan**

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritakoarekin bat, dagokion memoria ekonomikoa egingo da, eta aztertuko da zer kostu eragingo duen etorkizuneko araua aplikatzeak eta zelan eragingo duen EAeko aurrekontu orokorretan, kontuan izanik zer xedatzen den urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42.1 artikuluan.

Era berean, memoria horretan aztertuko da arauak beste administrazio batzuetan eta banakoengan duen eragina, baita ekonomian duena ere, oro har.

### **Bidezkoztat jotako izapideak eta txostenak**

Xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen arabera, hasierako aginduan adieraziko da zein diren izapide eta txosten egokiak, arautuko den gaia zein den kontuan hartuta.

Aipatutako araudian xedatutakoa betez, hasiera batean lege hau egin eta onartzeko behar diren izapide eta txostenak adieraziko dira:

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren aplikazioari buruzko Jarraibideak onartzen dituen 2017ko abenduaren 12ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiarekin bat etorririk, ulertuko da Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluan xedatzen dena (*Herritarren parte-hartzea lege-lerruneko arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran*) estalita dagoela hasierako fasean, zeina Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluetan arautzen baita.



Aztertzen ari garen arau-ekimenaren garrantzia eta norainokoa kontuan hartuta, hasteko agindu hau formalizatzean, **kontsulta publiko bat egingo da testua egin aurretik**, EAEko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan iragarkia jarrita, eta gobernu irekiaren plataformaren bidez (Irekia) jakinaraziko da. Bertan, herritarrek etorkizuneko xedapenaren helburuak ezagutu eta iritziak eman ahal izango dituzte.

Horretarako, herritarrei honako hauek jakinaraziko zaizkie: ekimenaren helburuak, konpondu nahi diren arazoak, hura onartzeko beharra eta egokitasuna, eta egon daitezkeen bestelako irtenbide arautzaileak eta ez-arautzaileak. 20 egun balioduneko epea emango da iritziak emateko.

*Legegunean* ere argitaratuko da informazio hori bera. Jasotako ekarpenak banaka edo multzoka txertatuko dira esandako arauaren testura.

Gobernu Kontseiluaren 2010eko abenduaren 28ko Erabakiak, zeinak Xedapen Orokorrak Izapidetzeko Jarraibideak onartzen dituen, lehen apartatuan (1. puntua) xedatu duenaren arabera, sustatutako araugintza-ekimena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako gainerako sailei eta Gobernuaren eragile juridikoei jakinaraziko zaie, prozedura hasteko agindu hau argitaratuz, ezagutza partekatuko *Legesarea* lankidetzarako gunean argitaratu ere.

Legearen aurreproiektu hau idazteko, agindu honetan esandakoa hartuko da oinarri, eta kontuan hartuko dira bilatzen diren helburuetara hobekien egokitzen diren aukera guztiak, bai eta aurreikusitako araudia egokia eta legezkoa izango dela ziurtatzeko egingo diren kontsulten emaitzak ere.

Bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuak aldeztu aurretik onetsi behar duen arau-ekimenaren azken testua bi hizkuntzatan idatzi beharko da (euskaraz eta gaztelaniaz), Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Erabakiak xedatu duena betetze aldera. Erabaki horrek neurriak onartu zituen lege, legegintzako dekretu, dekretu edo aginduaren forma hartzen duten xedapen orokorrak bi hizkuntzatan idazteko, eta 8/2003 Legea osatzera etorri zen.

Horretarako, eta aldeztu aurretik onartu beharreko testuaren euskarazko bertsioaren eta gaztelaniazko bertsioaren arteko zehaztasuna eta baliokidetasuna bermatzeko, IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofizialera joko da azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak (Euskararen Erabilera



Normalizatzekoak) 8.1 artikuluan xedatzen duena betetzeko; betiere, apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuaren arabera (zeinaren bidez agindu baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta erakunde autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko).

Xedapenaren azken testua euskaraz zein gaztelaniaz idatzi eta gero, eta kontuan hartuz lege-aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari bidali behar zaiola, Lan eta Enpleguko sailburuaren aldez aurreko oniritzia eduki ondoren, Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da aurretiazko izaerarekin onartu zen xedapenaren testua, Jaurlaritzaren Legearen 56.1 artikulua betetzeko, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera.

Espedientean jaso beharko da hala txosten ekonomikoa, dagoeneko aipatuta dagoena, nola beste **memoria bat, justifikatu behar duena** zergatik behar den araua, zer helburu dituen eta zer aukera dagoen emateko.

Halaber, arau-proiektuak enpresen eraketan, abiaraztean eta funtzionamenduan duen **eraginaren ebaluazioa** jaso beharko da, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Era berean, espedientera gehitu beharko da genero-eraginari buruzko txostena, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 40/2012 Ebazpenaren 2.1) Lehen Gidalerroan xedatutakoaren arabera. Horren bitartez xedatzen da argitara eman dadila Gobernu Kontseiluaren erabakia, «genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzekoa eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzekoa».

Era berean, espedienteari txosten bat gehituko zaio, honako hau betez: Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legea, Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoari 22 quinquies artikulua gehitzen baitio, eduki honekin: *Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriek araudiak haur eta nerabeengan duen inpaktua jaso beharko dute*. Gainera, «Arauek familian duten eragina» izeneko hamargarren xedapen gehigarria gehitzen dio Familia Ugariak Babesteko azaroaren 18ko 40/2003 Legeari, eta honako hau ezartzen du: *Lege-aurreproiektuekin eta erregelamendu-proiektuekin batera aurkeztu*





*behar diren araudi-inpaktuaren azterketen memoriek araudiak familiengan duen inpaktua jaso beharko dute.*

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.1 artikulua arabera, dekretu-proiektua idatzitakoan, *prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldez aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik. Hala aldez aurreko onarpenaren agindua* nola araugintza-proiektua (2010eko abenduaren 28ko Erabakiaren lehenengo ataleko 2. zenbakia) argitara emango dira Legesarea lankidetzaren gunean.

Nolanahi ere, Saileko Zerbitzu Zuzendaritzaren Aholkularitza Juridikoak **txosten juridikoa** egingo du. Txosten horretan honako hauek aztertuko dira: proiektuaren funts objektiboa, bai eta edukia Legearekin eta Zuzenbidearekin bat datorren eta arau-teknikaren jarraibideak bete diren; hori guztia, hauek kontuan hartuta: 8/2003 Legearen 7.3 artikulua, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. artikulua, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1 artikulua eta Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 7/2021 Dekretuaren 6.1 f) artikulua.

Xedapenaren zer-nolakoa kontuan hartuta, egin beharreko testua **jendaurrean** jarriko da. Horretarako, eta 8/2003 Legearen 8.4 artikulua aplikatzeko, izapidea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian iragarki bidez egingo da, hogeita egun balioduneko epean.

Entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egingo dira, baita lege-aurreproiektuaren eraginpean dauden autonomia-erkidegoko gainerako administrazioek parte-hartzeko eta haiei kontsultatzeko izapideak ere; horretarako, haiei guztiei lege-aurreproiektuaren berri emango zaie, 8/2003 Legearen 8. eta 9. artikulua, hurrenez hurren, aplikatuta. Proiektua toki-administrazioa (EUDELen bitartez) eta foru-administrazioa (lurralde historikoetako hiru aldundietara, alegia) bidaliko da, kontuan hartuta, betiere, esandako administrazio horiek hainbat jarduerara gauzatzen dituztela enplegu-politika aktiboen arloan.

Era berean, kontsulta egingo zaie proposatutako erregulazioak eragin diezaiekeen Eusko Jaurlaritzako sailei eta erakunde instituzionalari.

Arauk kalte ditzakeen sektoreei entzun egingo zaie. Horretarako, aurreproiektua bidaliko zaie entitate hauei:

- EAEn ordezkariak handiena duten enpresa-elkarte eta -konfederazioak, kasu honetan EAeko langile autonomoen interesak ordezkatzeko dituztenak barne (CONFEBASK, Asociación Vasca de Autónomos-Euskal Autonomoren Elkarte AVA-EAE, Unión de Profesionales y Trabajadores Autónomos de Euskadi, ABAT “Autonomoak BAT”)
- Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkagarritasun handiena duten sindikatuei.
- Gipuzkoako Bazkandeari, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari eta Bilboko Merkataritza Ganberari.
- Euskadiko Kooperatiben Konfederazioari.
- Euskadiko Lan Sozietatei.
- Prestakuntzako zentro publiko eta pribatuak ordezkariak handiena duten elkarteak (IKASLAN, HETEL, CECAP Euskadi eta IKAP)
- Euskadiko klusterrak

Prozedura bideratzean hurrengo nahitaezko txostenak eskatuko dira, izapide horiek arautzen dituzten xedapenek agintzen duten unean eta moduan, arau-xedapenak prestatzeko gaur egun indarrean dagoen prozedura gogoan hartuta. Besteak beste, honako hauek bildu behar dira:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeari buruzko otsailaren 5eko 2/1988 Legearen 3. artikuluko d) letran jasotakoaren arabera, eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikuluekin bat.
- Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak (xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duenak) 3. artikuluan eta otsailaren 23ko 73/2021 Dekretuak (Kultura eta Hizkuntza Politika Sailearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak) xedatutakoaren arabera.
- Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Erakunde Harremanetarako Sailburuordetzako Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletarako Zuzendaritzaren

txostena, aipatutako sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 08/2021 Dekretuaren 12 artikuluan xedatutakoaren arabera.

- Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 6.1 artikuluan ezarritakoan oinarrituta, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 18.a) artikuluari dagokionez.
- Lan-baldintzekin zerikusia duten alderdiei dagokienez, langileen ordezkariekin negoziazio-edo kontsulta-izapidea bideratuko da. Elkarrizketa hori naturalki egingo da, administrazio orokorraren eta hari atxikitako erakundeen zerbitzuan diharduten langileen lan-baldintzen negoziazio kolektiboa egiteko Eusko Jaurlaritzaren barruan ezarritako sistemaren esparruan, Funtzio Publikoko Sailburuordetzaren Lan Harremanen Zuzendaritzaren bitartez.
- Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta.
- Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena, Ogasun eta Ekonomia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 15.1.a) artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta.
- Gizarte Elkarrizketako Mahaiaren txostena, Euskal Autonomia Erkidegoan Elkarrizketa Sozialeko Mahaia sortzeko urtarrilaren 15eko 3/2019 Dekretuaren 3.2 artikuluari jarraikiz.
- Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean izendatzen zaizkion eskumenei jarraituz.
- Euskadiko Elkarrizketa Zibilerako Mahaiaren txostena, abenduaren 11ko 283/2012 Dekretuak (Elkarrizketa Zibilerako Mahaia eratu eta arautzekoak) 7.1. a) artikuluan xedatutakoari jarraikiz.
- Era berean, bidezkotzat jotzen da txostena eskatzea Gizarteratzeko Euskal Kontseiluari.



- Lan Harremanen Kontseiluaren txostena, Lan Harremanen Kontseiluaren ekainaren 27ko 11/1997 Legearen arabera.
- Euskadiko Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeko 91.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.
- Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen maiatzaren 17ko 8/2012 Legearen 3.1. a) artikuluan ezarrita dagoena aintzat hartuta.
- Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren nahitaezko txostena, arauak eta ekonomia kontrolatzeko egina urriaren 19eko 2/2017 Legegintza Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoak) III. tituluko IV. kapituluaren araututako moduan eta urriaren 31ko 464/1995 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituenak) araututako moduan.

Azkenik, lege-aurreproiektua Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari aurkeztu behar zaio, irizpena eman dezan, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1 artikulua c) letran xedatuta dagoenaren arabera, 3/2005 Legearen azken xedapenetako lehenengoan ezarritakoari dagokionez.

Esparru horretan eta Jaurlaritzaren Legearen 56.2 artikulua betez, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatzen duen ekainaren 2ko 8/2016 Legeak emandako idazkeraren arabera: *Aholku Batzorde Juridikora bidaliko den dokumentazio bera, aldi berean, Legebiltzarrerara bidaliko da, Legebiltzarreko taldeek horren berri izan dezaten.*

Era berean, nabarmendu behar da bete egingo dela lantze-prozesuko dokumentuen gardentasun-eta - publizitate-printzipioa, zeina aurreikusten baita azaroaren 9ko 19/2013 Legean (Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoan), *Legegunea* tresnaren bidez, horretarako gaitu da eta.

Lege-aurreproiektua taxutzeko prozeduran zehar sortuko den garrantzizko informazio juridikoa *Tramitagune* aplikazio informatikoaren gardentasunari buruzko atalean argitaratu behar da, bat etorrita Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 7. artikulua ezartzen duenarekin.

Espedientera sartuko dira honako hauek: hasteko agindua eta egokiak diren agiri guztiak, bideratutako azterlanak eta kontsultak, prozedura osoari buruzko memoria laburra eta memoria ekonomikoa, 8/2003 Legearen 10.2 eta 10.3 artikuluetan ezarritako edukiarekin. Hartara, Gobernu Kontseiluak, azkenik, lege-aurreproiektua onartu ahal izango du, aipatutako legearen 12. artikuluan ezarritako baldintzetan.

### **Europar Batasunerako egin beharreko izapideak.**

Ez da ikusten inolako izapiderik egin behar denik Europar Batasunerako.

Aurrez adierazitako aurrekariengatik, eta eman zaizkigun eskumenak baliatuta, honako hau

**EBAZTEN DUT:**

**Lehena.** Euskal Enplegu Sistemaren Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea.

**Bigarren.** - Enplegu eta Inklusio Zuzendaritza izendatzea arestian adierazitako proiektua izapidetzeko organo arduradun.

**Hirugarrena.** - Agindu honen berri ematea *Legesarea* izeneko lankidetzaren gunean, 2010eko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko abenduaren 28an emandako Erabakian xedatutakoaren arabera. Erabaki horren bidez onartu ziren hala xedapen orokorrak izapidetzeko jarraibideak nola *Legegunea* gunea.

**Laugarrena.** - Xedapen orokorrak izapidetzeko eredu eta *Tramitagune* aplikazio informatikoa erabiltzea, bat etorritik Gobernu Kontseiluaren Erabaki hauekin: 2010eko abenduaren 28ko Erabakia, izaera orokorreko xedapenen izapideak egiteko jarraibideak onartzen dituen; eta 2012ko azaroaren 27ko Erabakia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren zenbait prozeduraren tramitazio elektronikorako jarraibideak onartzen dituen.

**Bosgarrena.** - Araua egiteko eta haren egokitasuna eta legezotasuna ziurtatzeko azterlanak, txostenak eta kontsultak egitea.

Vitoria-Gasteiz,

IDOIA MENDIA CUEVA

BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUA